

KONTROL MOZIOA

CARLOS I-ko bizilagunekin bilera egiteko konpromisoa dela eta

Ayem Oskoz Urrutikoetxeak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2017eko urriaren 16an Gune Publikoetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Ekainaren 29an Udalbatzak honako mozio hau onartu zuen: *“Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari bete dezala martxoan onartutako mozioa eta aurtengo udaratik bueltan, irailean edo, beranduenez, urrian egin dezala bilera irekia Carlos I.go auzotarrekin, auzoan bertan, inguru honen etorkizuneko proiektuak eta bide horretan Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera orain arte emandako urratsak konpartitzeko”*

Hau da, ekainaren 29an, martxoan onartutako mozioa betetzeko eskatu zion Udalbatzak aho batez Udal Gobernuari. Ez hori bakarrik: bizilagunekin irailean, edo beranduenez urrian, bilera hori egitea ere onartu zuen Udalbatzak.

Batzordean, honen inguruan interpelatuta, zinegotzi delegatuak erantzun zuen ez zegoela aurreikusirik hilabete honetan bilerarik egitea, gaiaren inguruan ez zegoelako berritasun gehiagorik eta edozein kasutan, informazioa eduki behar zutenek bazutela jada. Udal Gobernuak, beraz, ez du Udalbatzak bi alditan aho batez onartutakoa bete nahi. Are gehiago, herritarrak informatzeko konpromisoa hartu duen arren, ez du halakorik egiteko asmorik. Oso larria da.

Honengatik guztiarengatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako KONTROL MOZIO hau aurkezten du

- Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio urtea bukatu baino lehen egin dezala bilera irekia Carlos I.go auzotarrekin, auzoan bertan, inguru honen etorkizuneko proiektuak

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
eh_bildu@donostia.eus - Tel. 943481027 -

eta bide horretan Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera orain arte emandako urratsak konpartitzeko, Udalbatzak honek berak aho batez onartutakoaren ildotik.

Donostian, 2017ko urriaren 20an

Ayem Oskoz Urrutikoetxea
EH Bildu udal taldeko zinegotzia